

Gu, ezker abertzalekook

Bai Jose Luis, niri ere kezkarri zait eskuinaren igoera, urdinaren hedapen bizkor hau. Baina kezkarri zait, orobat, hurbilago sentitzen ditudalako-edo, ezkerrekoak omen direnen zenbait jarrera.

Uxuek zioen ilusioz jaso zuela maiatzaren 15eko manifestazioaren ondotik sortutako akanpaden mugimendua, eta neronek ere horrela jaso nuen. Europa mailako ezkerrean aski barneratuta baitago ikaragarritzko mugak dituela bide instituzionaletik ezkerreko politika benetan eraldatzaileak sustatzeak, eta akanpaden mugimendua ezintasun hori bere egitekin abiatzen zela iruditu zitzaidan. Gurean, ordea, denbora galdu gabe hasi ziren ezker abertzaleko zenbait, kontua hasi eta ordu eskasetara –eta mizkintasun osoz– akanpadak sorbaldepetik begiratzen, honengatik eta besteengatik markaje estua egiten.

Jakina, zalantzak izatea zilegi da –neronek ere baditut bat baino gehiago–, jarrera kritikoa izatea bezainbat, baina benetan gogaikarria egiten zait zenbaiten gurasokeria. Batez ere “guk urteak daramatzagu haserre”, “guk hogeita hamar urte daramagu borrokan” eta horrelako gukeriak, zeinak “gu guay gara” eta “asko duzue gugatik ikasteko” mezu harroputzetan laburbiltzen baitira. Besteren eginahalez apropiatzeko lehenengo pertsona plural horren erabilera merkea. Izan ere, badirudi norbere burua ezker abertzaleko kide gisa izendatzeak borrokariaren debaldeko labela ematen diola bati zuzenean. “Gu, demokratok” esateak demokrataren debaldeko labela ematen dizun gisa berean. “Gu, ezker abertzalekook” esan eta, agi denez, ez duzu justifikaziorik eman behar, automatikoki kokatzen zarelako borrokaren abangoardian, nahiz eta urtetan egin

MARC CAMPÀ



Beñat Sarasola



Apaolaza



Padroin

duzun gauzarik iraultzaileena hautesontzi batean boto ziztrin bat sartzea izan (utzi dizutenean, hori bai). Nahiz eta kultur eredu kontserbadoreenetan (rock erradikal baskoa eta prosa kitsch-purpura) tinko mantendu, nahiz eta ingeniariatza OPUSen edo enpresaritzza Deuston ikasi, nahiz eta antzinako

erresuma baten ikurra eraman golkoan, nahiz eta alde zaharreko magrebtarrei destainaz so egin.

Eta ez dut uste, haatik, ezker abertzalea ezkerreko politikan inori lezioak emateko posizioan dagoenik. Egitan, ez dut uste inori lezioak emateko tokian dagoenik. Baina ez zarete harrituko esaten badut ezker abertzalea –gehiengoa–, maiuskulaz idazten diren auzi nazional handietan tematuta, abertzaleago iruditu izan zaidala maiz ezkertiarra baina. Antza denez, zenbaiten aburuz, independentzia erdiestean hasiko baikara kezkatzen lanaren banaketa eta duintasunaz, immigrazioaz, LGBTen eskubideez eta abarrez.

Baiki, ez dut uste, salbuespenak salbuespen, ezker politikei dagokionez, etxaruka hasteko tenorean dagoenik inor hemen. Bartzelonan akanpadetan egon diren ugari ibiliak dira betebetean Bolognaren kontrako mugimenduetan, edo greba orokorrean Espainiako Kreditu Bankuko egoitzaren okupazioan, edo desobediencia zibila muturrera eramanez (Enric Duran). Haiek ere aspaldidanik daude sumindurik. Ez dute inoren nagusikeriazko irakaspenik jasotzeko premiarik.

Eider Rodriguezi irakurri diot pozteko garaia direla datozenak, ez haserretzekoak. Hala bedi, neroni ere pozteko nintzateke hala balitz, baina ez dadila izan maiteminduaren poztasun txepela; batez ere, ez dadila izan norbere buruarekin maitemindua dagoenaren poztasun ezin txepelagoa. ■



‘Gu, ezker abertzalekook’ esan eta, agi denez,
ez duzu justifikaziorik eman behar, automatikoki
kokatzen zarelako borrokaren abangoardian,
nahiz eta urtetan egin duzun gauzarik
iraultzaileena hautesontzi batean
boto ziztrin bat sartzea izan

